


2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren Ebaluazioa
2009-2012ko Jarduketa-programa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

Kirol Zuzendaritza



2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren Ebaluazioa

01. Sarrera	5
02. Lan metodologia	6
03. 2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren proposamenen laburpena	7
04. Arraunketaren presentzia: lizentzia kopuru orokorren eboluzioa	10
05. EAEko Lurraldekako lizentzien eboluzioa	12
06. Nolakoak dira arraunlari gehien hezten dituzten elkarteak?	14
07. Belaunaldien eboluzioa: jubenil mailako krisia	21
08. Emakumeen arraunketako hazkundera	23
09. ACT Ligako arraunlarien zahartzea	25
10. Lurraldekako ezberdintasunak: ACT Ligako arraunlarien jatorria	27
11. Aulki Mugikorrean aritzen den arraunlari kopuru eskasa eta bere berrelikadura	28
12. Aulki Mugikorreko emaitzen beherakada	31
13. Arraunketako Euskal Federakuntzaren ahulezia	35

2009-2012 Euskadiko Arraunketarako Jarduketa-programa

01.	Programaren helburuak _____	39
02.	Jardueretarako oinarrizko ideiak _____	40
03.	Arraunketako Euskal Federakuntzako jarduerak _____	45
04.	Tostako Arraunketako ekintzak _____	50
05.	Aulki Mugikorreko ekintzak _____	55
06.	Proiektuen laburpena _____	64

01. Sarrera

2003. urtean Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzako ekimenarekin 2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoa abian jarri zen. Euskadin 2003-2007 aldirako Arraunketako kirol modalitatea sustatzeko beharrezkoak ziren neurriak era sistematiko eta egituratu batean bildu ziren.

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren xedeak:

- Euskadiko Arraunketako egoera ezagutzea
- Euskadiko Arraunketako etorkizunaren inguruan gogoeta egitea
- Jardunbideak eta ekintza planak proposatu ikuskera elkarbanatua lortzeko.
- Ekintza planak aurrera eramateko ardurak banatu.

Plana gauzatu den urteetan zehar eta honen ildoak jarraituz, Euskadin Arraunketak eboluzio bat jasan du, ospe eta jarraipen maila handia lortuz, bereziki, traineruen lehiaketek.

Plana amaitu ondoren, Arraunketaren, orokorrean, eta Planaren ebaluazioa egiteko garaia da, betetze maila ezagutzeko eta Planak Euskadiko Arraunketako modalitatean izandako eragina ezagutzeko.

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren ebaluazioa, helburuen berrikustea, ekintza planen betetze-mailaren azterketa eta emaitzak, Plan Estrategikoek etengabeko prozesua izan behar dutela ren logikaren barne kokatzen dira eta behin Planaren iraupena amaitzerakoan ebaluazioak gogoeta prozesu baterako bidea eman behar duela ulertzen da.

Lan honen helburu nagusia 2003-2007ko Plan Estrategikoan lortutako emaitzen arabera, ondoren datorren **2009-2012ko Arraunketako Jarduketa-programa** gauzatzea da.

2003-2007ko Planean zehar neurri txikiago batean gauzatu diren jarduera-arloak izango dira bereziki landuko direnak, beti ere, Aulki Mugikorreko Arraunketari garrantzia berezia emanez.

02. Lan metodologia

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta 2009-2012ko Euskadiko Arraunketako Jarduketa-programa egiteko ondorengo **datuak** lortu eta landu dira:

- Euskal Federakuntzak eta Lurraldekako Federakuntzek dituzten lizentzia, egutegi eta partaidetza.
- Espainiako Arraunketa Federakuntzak antolatutako Txapelketetan izandako lizentzia kopurua, partaidetza eta lortutako emaitzak.
- Azkeneko lau denboraldietan ACT Ligako arraunlariek osatu dituzten tripulazioak.
- INEtik lortutako Gipuzkoako eta Bizkaiko datu demografikoak.

Ondorengo **dokumentuak** berrikusi dira:

- Euskal Arraunketako bederatzi elkarten Plan Estrategikoak.
- Arraunketako Euskal Federakuntzaren eta Gipuzkoako Arraun Federazioaren Plan Estrategikoak.
- 1998-2002ko Erresuma Batuko iparraldeko eskualdean Arraunketa garatzeko Plana.
- Erresuma Batuko Arraunketako Amateur Elkartearen (ARA) "Jardunbide egokiak Arraunketan".

Elkarrizketak eta bilerak ospatu dira, bai aurrez aurre eta baita telefono-deien bidez ere:

- Bizkaiko Arraun Federakuntzako eta Arraunketako zazpi elkarteetako teknikarirekin.
- Euskal Arraunketako lau elkarteetako zuzendaritzako kiderekin.
- Arraunketako Euskal Federakuntzako eta Espainiako Arraunketa Federakuntzako presidenteeekin.
- Ikasarrauna ekimenaren arduradunekin.

Durango 2009ko urtarrilak 7an dokumentu honen zirriborro bat aurkeztu zitzaion klubei, federazioei eta Euskadin arraunketarekin harremana duten zenbait eragileei. Aurkezpenaren ondoren epe bat ezarri zen eragileek beren proposamenak eta dokumentuaren kontrako arrazoibideak eman zitzaizkien. Zirriborroari ekarpenik egin ezean, dokumentu hau behin-betikotzat jotzen dugu 2009ko apirilean.

03. 2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren proposamenen laburpena

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoa 2002ko Euskadiko Arraunketaren egoeraren ebaluazioarekin abiatu zen. Ebaluazioa ondorengo alderdiak jasotzen zituen AMIA koadroan laburbildu zen:



huldadeak

- A.1. Azpiegiturak eta Kirol Materiala
- A.2. Ez da beste kirol batzuk bezain erakargarria
- A.3. Arraunketako kirol eragileen trebakuntza eskasa
- A.4. Desorekatutako Lehiaketa Sistema eta Araudia, kirolerako ondorio kaltegarriekin.



ehatxuak

- M.1. Kirol eskaintza zabala
- M.2. Beherakada demografikoa
- M.3. Biztanlerian Arraunketa sustatzeko eta hedatzeko plan zehatzen falta
- M.4. Boluntarioen beherakada
- M.5. Oinarrizko mailen lehiaketan lanerako pizgarrien falta
- M.6. Epe luzerako Arraunketaren garapenerako proiektuen gabezia



ndarrak

- I.1. Arraunketak kirol-tekniko mailan dituen berezko balioak beste kirol batzuei dagokienez.
- I.2. Arrauna beste kirol batzuetatik bereizten dituzten baloreak
- I.3. Erreferente soziala den udalerrietan Arraunketak duen presentzia eta tradizioa
- I.4. Arraunketako Goi mailako Lehiaketek hedabideentzat eta babesle potentzialentzat duten balio handia, ikuskizunezko produktu eta produktu mediatiko bezala.



ukerak

- Au.1. Arraunketaren inguruan dauden eragile guztien arteko lankidetzeta
- Au.2. Kirol maila guztietarako instalazioen sorrera eta ustiapena
- Au.3. Kostako zenbait udalerrietan elkarleen eta instalazioen ustiapena, udalerriko kirol sustatzaile gisa.
- Au.4. Arraunketaren ustiapena kostako udalerrietan erakargarritasun turistiko gisa.
- Au.5. Egungo lehiaketa sistemaren garapena eta sendotzea.

Azterketaren ondoren, 2003-2007 aldirako Planaren Xedea, Lan ildoak eta Proiektuak ezarri ziren.

Xedea

Arraunarentzako etorkizun proiektua bermatzea, honetan oinarriturik: euskal ondare historikoan eta kulturalean sartu beharra eta, kirol espektakulu gisa, dituen aukerak baliatu beharra.

Lan ildoak eta Proiektuak:

Koordinaketa eta Elkarlana

Etengabeko elkarlana egin eta ahaleginak koordinatzeko esparrua ezarri, Euskal Arraunketari bultzada eman nahi dioten eragile guztien artean.

- Arraunketari buruzko Plan Estrategikoaren Jarraipenerako Batzorde sektoriala sortzea 2003-2007.

Zabalkundea

Herritarren artean, arraunketan aritzea bultzatu, zabaldu eta faboratzea, gure kultur ondareko osagai nabarmenaren aldeko zaletasuna gordetzeko.

- Ikastetxeetan arraunean hasteko programa
- Eskola-adineko kirolarientzako lehiaketa ezartzea
- Egungo eta etorkizuneko gorputz heziketako eta eskola-kiroleko irakasleei arraunari eta, arraunak kirolari eta kulturari begira dituen balioei buruzko prestakuntza ematea.
- Guztientzako Arraunketa programak
- Lehiaketa ludikoak eta herri lehiaketak bultzatzea

Gaikuntza

Kudeatu, antolatu eta lehiatzeko gaitasuna garatzen laguntzea arrauna egungo zein geroko ezaugarrietara egokitu beharko duten eragile guztien artean.

- Lurralde Federazioen eta Euskal Federazioen jarduketak bateratu edo koordinatu beharra sustatzea
- Kudeaketa planak elkarrekin garatzea
- Kirol azpiegitura komunak erabiltzera bultzatzea
- Udalen kirol azpiegitura eta ekipamenduak sortu, modernizatu eta garatzea sustatzea

Lehiaketa

Kirol maila eta modalitate bakoitzaren eskariak aseko dituen lehiaketa sistema berria garatzea


- Goi mailako lehiaketa sortzea Tostako Arraunketako modalitatean
- Lehiaketa sistema koordinatua garatzea EAeko esparruan
- Arraunaren maila teknikoak igotzea helburu duten teknika eta kudeaketa ikerketak

04. Arraunketaren presentzia: lizentzia kopuru orokorren eboluzioa

1 Taula: Urteko lizentziak 93-08

Urtea	Inf. Mutilak	Inf. Neskak	Kad. Mutilak	Kad. Neskak	Jub. Mutilak	Jub. Neskak	Senior Mutilak	Senior Neskak	Guztira Urtea
1993	203	14	286	50	345	51	866	53	1.868
1994	165	33	288	65	327	47	861	47	1.833
1995	140	32	241	61	312	52	910	45	1.793
1996	170	23	199	50	308	54	866	62	1.732
1997	152	12	210	34	260	87	825	63	1.643
1998	162	22	241	30	245	49	869	68	1.686
1999	199	22	253	28	218	52	838	55	1.665
2000	158	21	193	31	238	47	776	52	1.516
2001	225	27	217	46	205	20	784	44	1.568
2002	209	45	220	44	177	33	782	44	1.554
2003	197	53	241	42	183	35	742	38	1.531
2004	233	57	204	77	207	31	844	61	1.714
2005	267	81	209	83	207	50	911	70	1.878
2006	127	48	239	76	193	88	933	109	1.813
2007	93	47	262	105	156	85	907	174	1.829
2008	102	39	295	121	223	48	989	106	1.923

1 Irudia: Urteko lizentziak 93-08



1993 urtetik 2008 urtera arte izandako lizentzia kopuruaren eboluzioak oreka handia islatzen du.


2003 urtera arte dagoen beheranzko joera aipagarria da, 2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoa martxan jarri zen urtera arte, hain zuzen.

Urte honetatik aurrera, lizentziek gora egiten dute eta lizentzia kopuru handiena 2008 urtean lortzen da.

2003-2007ko Plan Estrategikoa abian jarri zenetik lizentziek berriro gora egin dute


Datuek Euskadiko Arraunketako lizentzia kopuru orokorraren hazkundea islatzen dute; baina ikuspegi egokiago bat izateko maila ezberdinetako joerak aztertu behar dira.

2 Irudia: Emakumeen lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08




“**Maila ezberdinetako lizentzia kopuruaren azterketan sakontzerakoan aski ezaguna eta kezagarria den errealitatearekin egiten dugu topo: mutilen infantil, kadete eta jubenil mailetan arraunlari kopurua jaisten ari da, 2003az geroztik pixkanaka lizentzia kopurua handitzen ari dela dirudien arren**”

3 Irudia: Inf., Kad., Jub. mailetako mutilen lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08




4 Irudia: Senior mailako mutilen lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08




Lizentzia kopuruari dagokionez, Euskadin Arraunketako egitura berri bat eratzen ari dela dirudi. Grafikoki eboluzio hau garbi antzematen da:

5 Irudia: Arraunlarien banaketa



“Lizentzia kopuruaren hazkundera senior mailan igartzen da. Maila honen garrantzia, lizentzia kopuruari dagokionez, handitzen ari da”

6 Irudia: Inf., Kad., Jub. mailetako lizentzia kopuruaren eboluzioa modalitatearen arabera 93-08




Euskadiko Arraunketako lizentzien egituran izandako aldaketen zergaitien eta ondorioen inguruko zalantza sortzen da. Elkartetako arduradun eta teknikariekien elkarriketatu ondoren, bi hipotesi jasotzen dira:

1. **Ezkorra:** Euskadin Arraunketa fitxaketa dinamika batekin hasi da eta, modu horretan, urte luzez arraunlari berdinak mantentzen ditu (“beti aurpegi berdinak ikusten dira”) eta arraunlari gazteei bidea itxi egiten zaie, azken hauek motibazioa galduz eta utziz. Joera honek **sistemaren porrota** eragingo du arraunlari beteranoek arraunketa uzten dutenean.
2. **Baikorra:** Arraunketako kaptazio politikak **egokitzen** ari dira, adin gehiagoko pertsoneri zuzenduz, urte gutxitan arituz gero, lehiatzeko maila altua lortzen baitute. Horrexegatik inoiz arraunketan ibili ez diren senior mailako pertsonak geroz eta gehiago kaptatzen dituzte. Gaineratu beharra dago ere, Arraunketan ibiltzen diren zenbaitek trukean ordain saria jasotzen dutela eta, era horretan, denbora gehiago jarraitu dezakete arraunketan.

05. EAEko Lurraldekako lizentzien eboluzioa

EAEko lurraldeen artean dauden ezberdintasunei buruz esan, ez dela ezberdintasun nabarmenik antzematen. Arabak Arraunketan aritzen zen elkarte bakarra galdu du. Gipuzkoa eta Bizkaiko jokabideak oso antzekoak izan dira, ezberdintasun txiki batzuk medio.


7 Irudia: Gipuzkoako eta Bizkaiko lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08



“Gipuzkoa da Arraunketako lizentzia gehien dituen lurraldea. Bizkaiarekiko diferentzia bi arrazoi nagusigatik handitu da:


- Gipuzkoan nesken lizentzia kopurua Bizkaian baina gehiago handitu da
- Bizkaiko infantil mailako lizentzia federatuak desagertu egin dira

8 Irudia: Gipuzkoako eta Bizkaiko senior mailako lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08




Azken urtean Bizkaiko mutilen kadete eta jubenil mailako lizentzia kopuruaren handitze nabarmena aipagarria da”

9 Irudia: Gipuzkoako eta Bizkaiko mutilen Kad. Eta Jub. mailako lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08




10 Irudia: Gipuzkoako eta Bizkaiko Nesken lizentzia kopuruaren eboluzioa 93-08



Oharra: Kadete eta jubenil mailako lizentziak hartu dira bakarrik kontuan, azken urteotan Bizkaiko infantil mailako lizentziak ez baitira federaziotik bideratu.

Sortzen den galdera garbia da: **elkartek beren kaptazio lanak ez al dituzte behar bezala egin?** Agian zenbait kasutan baina, oro har, arrazoia nagusiki jaiotze-tasaren beherakada izan da. Lurralde bakoitzeko infantil, kadete eta jubenil adinetako lizentzia kopurua adin hauetako biztanleriarekin alderatuz gero, eboluzio baikor bat igartzen da.

11 Irudia: Gipuzkoako eta Bizkaiko Inf., Kad. eta Jub. mailetako lizentzien portzentaia biztanleriarekiko



Aldaketa demografikoak eta jaiotze-tasaren beherapena dira Arraunketan gazte kopuru handiago bat ez aritzearen arrazoi nagusia.

Bere adineko biztanleria kontuan izanik, Arraunketan dabilzan neska-mutilen portzentaia azken hamarkadan etengabe hazi da


2003-2007ko Plan Estrategikoan ezarritako lan ildoen implementazioak emaitza ezberdinak eman ditu Gipuzkoan eta Bizkaian

06. Nolakoak dira arraunlari gehien hezten dituzten elkarteak?


Infantil, kadete eta jubenil mailetako lizentzia kopuru gehien dituzten elkarte motak ezagutzeko helburuarekin, ondorengo irizpideen arabera elkarteek dituzten batezbesteko egiturak aztertu dira:

- **Elkartea zein lurraldetakoa den:** Gipuzkoako eta Bizkaiko elkarten batezbesteko tipologiaen arteko ezberdintasunak aztertu dira. Tamainari dagokionez zenbait ezberdintasun antzematen dira, Gipuzkoako lizentzia kopurua pixka bat handiagoa izan da baina ezberdintasun hau ez da oso esanguratsua.

12 Irudia: Gipuzkoa eta Bizkaiko elkarte bakoitzaren lizentzien batazbestekoa 93-08



13 Irudia: Gipuzkoako eta Bizkaiko elkarte bakoitzaren Kadete eta Jubenil mailako lizentzien batazbestekoa 93-08




- **Aritzen diren modalitatearen arabera:** Aulki Mugikorrean dabilzan elkarteak (gehienek Tostako Arraunketan ere aritzen dira) Tostako Arraunketan dabilzan elkarteekin alderatu dira, bien arteko ezberdintasunak aztertuz. Irizpide honen arabera ezberdintasun handiagoak antzematen dira eta datuen azterketak **Aulki Mugikorrean dabilzan elkarteetan batezbesteko lizentzia kopurua handiagoa dela erakusten du, Infantil, Kadete eta Jubenil mailetan, bereziki.**

2 Taula: Elkarte bakoitzeko batezbesteko lizentzia kopurua modalitatearen arabera 93-08

Modalitatea	Aulki Mugikorra	Tostako Arraunketa bakarrik
Inf. Mutilak	9,03	3,61
Inf. Neskak	2,84	1,17
Kad. Mutilak	11,73	5,69
Kad. Neskak	3,37	2,26
Jub. Mutilak	9,26	4,54
Jub. Neskak	2,68	1,26
Senior Mutilak	39,37	22,52
Senior Neskak	3,03	3,07
Guztira	81,31	44,12

14 Irudia: Elkarte bakoitzeko batezbesteko lizentzia kopurua modalitatearen arabera 93-08




- **ACT Ligan parte hartzen duten edo ez:** Badirudi Arraunketan dabilzan pertsonentzat erakargarriagoa izan daitekeela ACT Ligan dabilzan elkarteetan aritzea. Datuek horrela erakusten dute eta lizentzien batezbestekoan hauxe da eragin gehien duen irizpidea.

3 Taula: Elkarte bakoitzeko batezbesteko lizentzia kopurua ACT Ligan parte hartu edo ez 93-08


ACT Liga	ACTn	Ez ACTn
Inf. Mutilak	9,26	4,39
Inf. Neskak	2,69	1,47
Kad. Mutilak	12,54	6,40
Kad. Neskak	4,36	2,17
Jub. Mutilak	8,31	5,51
Jub. Neskak	1,95	1,67
Senior Mutilak	41,59	24,53
Senior Neskak	2,33	3,25
Guztira	83,03	49,37

15 Irudia: Elkarte bakoitzeko batezbesteko lizentzia kopurua ACT Ligan parte hartu edo ez 93-08



Azpitarragarria den beste alderdi bat **zenbait elkarteetako oinarrizko mailetan biltzen den lizentzi kopuruaren konzentrazioarako dagoen joera da**. Infantil, Kadete eta Jubenil mailetak lizentzia gehienak elkarte gutxi batzuetan konzentratzen dira eta konzentrazio hau hazten doala ere antzematen da. Azken finean, elkarte “haundien” garrantzia erlatiboa (lizentziei dagokienean) geroz eta handiagoa da. Aztertutako urte guztien artean hiru elkarte beti lehenengo bosten artean kokatu direla aipatu behar da: CRO Orio, Hondarribia AE eta Ur Kirolak.

**16 Irudia: Lizentzien konzentrazioa
Inf., Kad., Jub.**




“**Arraunketako elkarteetako lizentzien egiturari dagokionez, bi faktore dira ezberdintzaileenak:**

- 1. Aulki Mugikorrean aritzea**
- 2. ACT Ligan parte hartzea**

Harreman honen zentzua edo norabidea, ordea, kalkula ezina da, hau da, ACT Ligan parte hartzeagatik eta Aulki Mugikorrean aritzeagatik lizentzia kopuru handiagoa duten edo alderantziz.”


4 Taula: Arraunketako klubetako lizentzia kopurua 2008an

Kluba	Inf. Mutilak	Inf. Neskak	Kad. Mutilak	Kad. Neskak	Jub. Mutilak	Jub. Neskak	Sen. Mutilak	Sen. Neskak	Guztira
Ur Kirolak	9	4	20	4	13	6	92	4	152
Hondarribia	24	10	22	11	12	5	47	11	142
Tolosaldea Oria	12	7	19	14	11	6	45	22	136
Orio A.E.	6	5	10	15	16	1	69	2	124
Arkote	4	0	16	5	6	1	61	12	105
Arriluze de Getxo	0	0	13	3	18	2	54	4	94
P.D. Koxtape A.E.	14	0	14	4	18	6	28	0	84
Aita Mari	5	0	8	9	5	6	41	4	78
Deustuko A.T.	19	1	5	7	9	2	29	6	78
Itsasoko Ama	7	0	20	0	13	0	32	0	72
Ondarroa A.E.	10	1	16	8	10	0	24	3	72
Sanpedrotarra	0	2	7	9	1	0	43	0	62
Bermeoko A.E.	14	1	13	0	1	0	31	0	60
Donostia A.L.	0	0	10	1	4	0	43	0	58
Kaiku	2	0	7	0	10	0	39	0	58
Santiagotarrak	6	6	6	5	4	4	21	2	54
Illunbe	1	0	6	5	3	0	36	1	52
Getaria	18	4	7	4	7	0	0	10	50
San Nicolas	2	1	5	0	11	0	30	0	49
Lutxana A.E.	5	0	13	0	3	0	20	1	42
Isuntza	10	0	11	0	5	0	15	0	41
Raspas del Emb.	0	0	6	0	10	0	25	0	41
Zarautz A.E.	0	0	9	0	6	0	21	0	36
C.D.R. Iberia	0	0	1	1	1	1	26	1	31
Elantxobe	0	1	10	6	0	0	12	2	31
Hibaika	2	0	0	0	1	2	22	4	31
Mundakako A.E.	4	0	6	0	9	0	10	0	29
Zierbena	0	0	0	0	1	0	25	3	29
C.D. Fortuna	0	0	0	0	0	0	15	7	22
Karmelego Ama	1	4	0	8	0	3	1	4	21
Hernani	5	1	5	2	1	0	5	0	19
Urdaibai	0	0	0	0	14	0	2	0	16
Lekeitioko Lea	0	0	0	0	0	0	12	0	12
Itsaso A.E.	0	0	10	0	0	0	0	0	10
Gernikako Busturialdea	0	3	0	0	0	3	0	3	9
C.D. Yola	0	0	0	0	0	0	8	0	8
Artibai	0	6	0	0	0	0	0	0	6
S.D.R. Emendek	0	0	0	0	0	0	5	0	5
Guztira	180	57	295	121	223	48	989	106	2.019




“ Ezberdintasun handiak antzematen dira klubuen artean; kontuan eduki behar da elkarte batzuk beste batzuen filiak direla eta hauen lizentzia kopurua oso baxua dela ”

18 Irudia: Arraunketako Kluben Infantil eta kadete mailetako lizentzia kopurua 2008an



“**Infantil eta kadete mailetako lizentzia kopuruaren ezberdintasunak handiagoak dira. Maila hauetan 14 klubek 10 lizentzia baino gutxiago igorri zituztela azpimarratu behar da.**”

19 Irudia: Arraunketako Kluben nesken lizentzia kopurua 2008an




“**Nesken lizentzia kopuruan aurki daitezke ezberdintasunak handienak:**

- **11 klubek ez dute nesken lizentziarik**
- **25 klubek 10 lizentzia baino gutxiago dituzte**
- **Bi klubek bakarrik dituzte 25 lizentzia baino gehiago**”

07. Belaunaldien eboluzioa: jubenil mailako krisia

Duela gutxira arte jubenil maila funtsezkoa izan ohi zen arraunlarien hezkuntza prozesuan. Elkarte gehienak jubenil mailan hasten ziren beren neska eta, batez ere, mutilak lehiaketetarako prestatzen, etorkizunean, traineruan hasteko.

20 Irudia: Jubenil mailako lizentzien eboluzioa 93-08




Aurreko ataletan, bai datuek bai irudiek mutilen jubenil mailako Arraunketa jaisten ari zela erakusten zuten.

Elkarteek arrazoi asko aipatu dituzte beherakada honen zergatia azaltzeko baina, hala eta guztiz ere, datuek eta irudiek garbi erakusten dute: kadete mailatik jubenil mailara igarotzean uzte-tasa handia agerian geratzen da.

Irudietan belaunaldi ezberdinen azterketa azaltzen da eta baita belaunaldi bakoitzean dagoen Arraunketako lizentzia kopurua maila batetik bestera igarotzerakoan ere.

“Kadete mailatik jubenil mailara igarotzerakoan dagoen uzte-tasa kezkarria da: Arraunketako eskaintza ez da guztiz interesgarria neska-mutilentzat (edo beren gurasoentzat)”

21 Irudia: Mutilen lizentzia kopuruaren eboluzioa belaunaldien arabera




Belaunaldien azterketak mutiletan 1981ean jaiotakoan belaunaldira arte lizentzia kopurua areagotuz zihoala erakusten du; hau da, zenbait infantil hasten ziren, kadete mailan arraunketa uzten zutenak baino kopuru handiago bat hasten zen eta jubenil mailara igarotzerakoan gauza berbera gertatzen zen. Era honetan, belaunaldi bakoitzean jubenil maila arte arraunlari kopurua handituz zihoan.

1982an jaiotako belaunalditik aurrera aipatutakoa aldatu egiten da eta kadete mailatik jubenil mailara igarotzerakoan arraunketa uzten duten pertsonen kopurua jarraitzen dutenena baina handiagoa da. Errealitate honek 1990ean jaiotakoen belaunaldira arte dirau.

Bestalde, infantil mailan kaptazioa areagotu egin dela erakusten dute datuek, 1990ean jaiotakoen belaunaldira arte jubenil mailara iritsitako mutil kopuruarengan islatu egin ez bada ere. Laburbilduz, azken urteotan mutil gehiago kaptatu bada ere, gero eta mutil gutxiago iristen da jubenil mailara.

Nesken mailetan azterketa berdina eginez gero, ez da eredu orekaturik aurkitzen; aldaketak edo desoreka lizentzia kopuru txikiagoa izatearen ondorio da. Horregatik lizentzia kopuru orokorrean izan daitekeen aldaketa txikiak ere, garrantzia relatibo handia izan dezake. Honegatik guztiagatik, arraunketan aritutako nesken belaunaldien azterketatik ezin dira ondorio fidagarriak atera.

22 Irudia: Emakumeen lizentzia kopuruaren eboluzioa belaunaldika



Elkarteek hau azaltzeko emandako arrazoiak ezberdinak dira:

- Jubenilek oso zaila ikusten dute traineru batean arraunketan aritzea, helduagoak urte luzez aritzen baitira eta beraien ibilbidea itxi egin dute. Honek gazte asko gogogabetu egiten ditu.
- Ikasketekin batera uztartzeko gazte askok duten ustezko zailtasuna.
- Jubenil mailan dagoen gehiegizko exijentzia.
- Kalitatezko estropada eta lehiaketa faltaren ondorioz, adin honetako gazte askorentzat Arraunketak erakargarritasuna galtzen du.


“Argi dago arrazoiak ezberdinak izan daitezkeela, batzuekin ezer gutxi egin daiteke baina gazteak Arraunketan mantentzeko funtsezko aldaketak eta neurriak hartzea beharrezkoa da: egutegiak, lehiaketa mota, aukerak, e.a”

08. Emakumeen arraunketako hazkundera


2003-2007ko Plan Estrategikoan “Emakumeei zuzenduriko Arraunketaren sustapenerako ikuspegi berezia” aipatzen da, “Guztiontzako Arraunketa Egitasmoak” atalaren baitan.

Zenbait elkarte eta federakuntza emakumeen Arraunketako kaptazioa eta trebakuntza era antolatu batean lantzen hasi dira. Ekimen hauek guztiak baikorrak izan dira, emakumeen Arraunketako lizentzia kopuruak izandako gorakada ikusita.

23 Irudia: Arraularien portzentaia sexuaren arabera 93-08




24 Irudia: Inf., Kad. Eta Jub. mailetako arraularien portzentaia sexuaren arabera 93-08



“Emakumeen arraunketako maila ezberdinetako lizentzien portzentaia gorakada nabarmena izan du, batez ere, 2003 urteaz geroztik infantil, kadete eta jubenil mailetan, lizentzia guztien %12a izatetik %25a izatera arte”


Arraunketako lizentzia kopuruaren hazkundera garrantzia handikoa izan da emakumeen artean. Hazkunderaren ezaugarri esanguratsuena, bi modalitateetan aritzen diren elkarteek izandako hazkunde orokorra da; baina hazkundera nabarmenagoa izan da Tostako Arraunketa soilik lantzen duten elkarteetan.

25 Irudia: Emakumeen lizentzia kopuruaren eboluzioa modalitatearen arabera 93-08



“Tostako Arraunketako elkarteak izan dira gehien bat emakumeen Arraunketan lizentziek gora egitearen arduradunak eta sustatzaileak”

26 Irudia: Emakumeen lizentzien portzentaia modalitatearen arabera




Zergatiak ezberdinak dira, elkartek emakumeen artean Arraunketa sustatzeko zuten interesaz gain, lizentzien hazkundeak estropaden kalitatea hobetzea ekarri du, partaidetza handituz. Bestalde, emakumeen traineruen partaidetzak estropada ezberdinetan, Euskadiko Txapelketan eta Kontxako Estropadan, esaterako, Arrauketara emakume gehiago erakartzeko balioko du.

09. ACT Ligako arraunlariren zahartzea

Egindako elkarrizketetan, teknikari eta zuzendaritzetako kideen artean kezka bat antzeman da: “beti aurpegi berdinak ikusten dira” edo “arraunlariak geroz eta zaharragoak dira” elkarrizketa askotan errepikatutako esaldiak dira.

ACT Ligan parte hartzen duten arraunlariren adina aztertuz, garbi geratzen da kezka hau justifikatuta dagoela, datuek arraunlariren adinaren batezbestekoa urtero 6 hilabete handitzen dela erakusten baitute, 30 urte inguruko batezbesteko adinera iritsiz.

27 Irudia: ACT Ligako arraunlariren batezbesteko adinaren eboluzioa 05-08



“ACT Ligako arraunlariren batezbesteko adina denboraldi bakoitzeko 6 hilabete handituz joan da, dagoeneko 30 urteetara iritsiz”

	2005	2006	2007	2008
Gipuzkoa	27,30	26,80	28,10	28,27
Bizkaia	27,30	28,30	30,70	32,68
Kantabria	29,00	30,40	30,60	29,88
Galizia	25,50	27,70	27,60	28,80
Batezbestea	27,28	28,30	29,25	29,91

ACT Ligan parte hartzen duten lurralde ezberdinetako tripulazioen artean zenbait ezberdintasun antzematzen dira. Bizkaiko tripulazioen batezbestekoa da zaharrena, 32,68 urteetara iritsiz, eta Gipuzkoako tripulazioena, ordea, gazteena, 28,27 urterekin.

Elkarteetako zenbait teknikariri aipatu ondoren hiru zergaiti aipatzen dira:

1. Arraunlariek jasotzen dituzten **ordainsarien** igoerak, **denbora luzeagoz Arraunketan** aritzea ahalbidetu die.
2. Jubenil mailatik iristen den kalitatezko **errelebu eskasa**.
3. Elkarrekin **senior mailako kirolariak** kaptatzeko egin duten lan handiagoa, aurretik arraunketan aritu ez diren kirolariak baina baldintza fisikoak ona dituztenak eta epe laburrera goi mailako lehiaketetan ibili daitezkeen pertsonak dira.

Zahartze honen ondorioak iragartzen saiatzean, galdeturiko pertsonak 04 puntuak auzeratuak bi hipotesiak aipatzen dituzte, ezkorra, etorkizunean sistemaren porrota edo gelditzea aurreikusten dutenak, eta, baikorra, Arraunketaren berrantolaketa bat proposatzen dutenak. Bietako zein izango den zalantzaren aurrean, logikak trebakuntza eta kaptazioa lantzea darama, lehenengoa izango balitz zuzena (gelditzea), eta bigarren hipotesia (berrantolaketa) izanez gero zuzena, jubencil mailatik datorren lizentzia kopuruaren gorakada beti baikorra izango da.

“**Datu hauen haritik bi aspektu nabarmendu behar dira ACTko klubetako arraunlarien etorkizunera begira:**


- ▶ **Elkarte gehienetan somatzen da klubak eta ordainsaria jasotzen duten arraunlarien arteko harremana erregulatzen duten kontratuen gabezia, ordainsaria oso handiak izatera irits daitezke zenbait kasuetan.**
- ▶ **ACTko klubak aurrekontuetan dauden ezberdintasun handiak, lehiatzeko desoreka handiak sor ditzake. Beste zenbait kirol modalitateetan urteak daramatzate desoreka hauek ekiditeko neurriak hartzen (soldata mugatuak, Draft sistema, sarreraren banaketa, e.a.)**

10. Lurraldekako ezberdintasunak: ACT Ligako arraunlarien jatorria

Elkarteetan gehien aipatzen den beste alderdietako bat zenbait elkarteek beste elkarte eta lurraldeetatik fitxatzen dituzten arraunlari kopuruaren areagotzea da eta honek arraunlarien lurralde “esportatzaile” eta lurralde “inportatzaileen” artean eragin dezakeen desoreka da.

Datuak aztertuz, lurraldeen artean ezberdintasunak antzematen dira. Era horretan, Gipuzkoa eta Galizia beste lurraldeetako traineruetara arraunlari “esportatzaileak” direla argi ikus daiteke. Kantabriako elkarteek beren lurraldeaz kanpoko arraunlarien portzentai handi bat fitxatzen dute eta Bizkaiko elkarteek, Bizkaitik kanpora fitxatzeko hazten ari den joera aurkezten dute. Bestalde, ACT Ligaren ordezkartzarik ez duten lekuetako arraunlarien portzentaia orekatuta mantentzen da, hala nola, Asturias, Errumania, Errusia, Argentina, e.a.

28 Irudia: ACT Ligako arraunlarien eta traineruen jatorria



“ACT Ligan parte hartzeagatik elkarteek izandako sarreren gorakadak, arraunlariak elkarte batetik bestera ibiltzeko aukera eman du, baita arraunlarien jatorritik urrun dauden elkarteetara ere.

ACT Ligan parte hartzen ez duten elkarteak dira, beraien iritziz, egoera honek gehien kaltetzen dituenak, ez baitituzte beharrezko baliabideak arraunlariak mantentzeko edo kanpoko fitxaketaren batekin indartzeko”

11. Aulki Mugikorrean aritzen diren arraunlari kopuru eskasa eta bere berrelikadura

EAEEn antolatzen diren Aulki Mugikorreko estropadetako partaidetza aztertuz, estropada hauetan aritzen den partaide kopuruan beherakada bat igartzen da. Modalitate honetan aritzen diren elkarteek ere kezka azaltzen dute beherakada honen inguruan.


Arazoa gainera berrelikatu egiten da. Partaidetza gutxitzean estropaden erakargarritasuna txikitu egiten da, beherakada gehiago nabarmenduz. Era honetan, azkenik ez duen istorio bat amaitzen da, EAEEn Aulki Mugikorra maila kezkarri batera eramanez.

Hala eta guztiz ere, Aulki Mugikorrean aritzen diren elkarteetako lizentzia kopuruak datuak aztertuz, egoera ez da hain larria. 1993an lortutako mailera iristea lortu ez den arren, Aulki Mugikorrean aritzen diren elkarteetako lizentzia kopurua areagotuz doa.

Horrenbestez, datuek kontraesanean dauden bi joera aukezten dituzte: Aulki Mugikorreko estropadetan partaidetza txikituz doala eta Aulki Mugikorrean aritzen diren elkarteetako lizentzia kopurua handituz doala. Arazoa, ondorioz, garbia da, ez da elkarteak Tostako Arrauketan bakarrik aritzen direla, Aulki Mugikorrean aritzen jarraitzen duten arren, neurri txikiago batean aritzen direla da eta, sarritan, EAEz kanpoko txapelketetan. Azken hau, batez ere, mutilen senior mailan antzematen da.

“**Aulki Mugikorrean dabilzan elkarteen lizentzia kopurua ez da jeitsi baina bai, ordea, EAEEn antolatzen diren estropadetako partaidetza**”

29 Irudia: Inf., Kad. eta Jub. mailetako lizentzia kopuruaren eboluzioa modalitatearen arabera 93-08



Joera honen **zergatien** inguruan zenbait teknikariri galdetu ostean, ondorengo hauek aipatzen dira:

1. Aulki Mugikorra **garestitzearen** ondorioz zenbait elkarteek esfortzu eta arraunlari gutxiago eskaintzen dizkiote modalitate honi, nagusiki, Tostako Arraunketako taldeari eskainiz.
2. EAEko estropadetako **partaidetza eskasak**, elkarteak estatu edo nazioarte mailako estropadetan parte hartzea daramatza, EAEko estropadetan beren partaidetza baztertuz.
3. Mutilen senior mailan Aulki Mugikorreko denboraldiak gehienez apirila edo maiatza arte iraun dezakeela pentsatzen da, arraunlariak ondoren **traineruen** denboraldirako behar bezala prestatu daitezten.
4. **Traineruko Arraunketaren goieneko aldiak** eta Aulki Mugikorreko errekonozimendu eskasak, gazteak elkarteetara gerturatzean Tostako Arraunketan aritu nahi izatearen arazoak dira, ezagutzen eta nahi duten ereduak baita.

Bestalde, beste zenbaitetan egindako azterketetatik (Arraunketako Euskal Federakuntzako 2006ko Plan Estrategikoa) eta elkarteetako teknikariek izandako elkarrizketetatik ondorengo **arazoak** antzematen dira:

- Lehiaketa gabeko asteak ez dauden Tostako Arraunketako denboraldi egonkor batekin alderatuz, **Aulki Mugikorreko egutegiak abagunea handiak aurkezten ditu**. Trainerilen denboraldiak duen abagunea esanguratsua da oso. Senior mailara eta neurri txikiago batean jubencil mailara zuzendutako lehiaketa da baina denboraldian zehar apenas antolatzen dira EAEn Aulki Mugikorreko estropadak.
- **Egutegiak senior mailarekiko gehiegizko dependentzia** du. Egutegi orokorra maila honen denboraldiaren arabera egin da, beste maila guztiak senior mailara egokituz. Egutegi bakoitza bere aldetik egitea beharrezkoa ikusten da senior mailako eta beste mailako helburu ezberdinen arabera.
- **Aulki Mugikorreko ontzidi mota anitza** eta estropada batzuetan hauek mugatzeko dagoen akordio falta, estropadetan partaide gehiago egon daitezten, estropada hauek erakargarriagoak eginez arraunlarientzat.
- Urteetan zehar arazo hauen inguruko eztabaidak egon dira baina arazo larriena eta kezagarriena, eta elkarte gehienak daoeneko ohartu dira, Euskal Arraunketak **aldaketak egiteko erakutsi duen gaitasun eza** da.

“Aulki Mugikorreko arazoan aurrean, zenbait kasutan izan ezik, elkarteek hartutako neurriak, Tostako Arraunketan zentratzea eta EAEko txapelketetan parte ez hartzea izan dira, partaidetza handiagoko (eta kalitate handiagoko) estropadetan parte hartuz”

5 Taula: Lehiaketen egutegia eta EAEn parte hartutako ontzi kopurua. 2003,2004 eta 2005 urteak (Plan Estrategikoko AEJ-FVR 2006)

2003	2003																															2004	2004																															2005	2005																																										
	ENERO					FEBRERO					MARZO					ABRIL					MAYO					JUNIO					JULIO					AGOSTO					ENERO					FEBRERO					MARZO					ABRIL					MAYO					JUNIO					JULIO					AGOSTO																															
Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35
	B. móvil			81	91	34				30			86	95		77							9																																																																																				
	Batel						60	68	71	70	67	61	59	44			17	22	26	28																																																																																							
	Trainerrilla											19	20				32	35	31	20		28	34	31	38																																																																																		
Trainera																																																																																																											
Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35
	B. móvil			25	38					29																																																																																																	
	Batel						80	79				85	78	62	64	64						41	27	41	35	40																																																																																	
	Trainerrilla																																																																																																										
Trainera																																																																																																											
Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	Euskadi Bizkaia Gipuzkoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35
	B. móvil				61																																																																																																						
	Batel						65	78				83	79	71	65	65						33	26	18	27																																																																																		
	Trainerrilla																																																																																																										
Trainera																																																																																																											

12. Aulki Mugikorreko emaitzen beherakada


Aurretik aurkeztutako datuek EAEn Arraunketako Aulki Mugikorreko jardura jaisten ari dela erakusten badute, euskal elkarteetako arraunlariek lortutako emaitzen kalitatean eragina izatea ez litzateke arraroa izango.

Ondorengo atalean euskal Arraunketako elkarteek lortutako emaitzen eboluzioa aztertzen da. Ebaluazio zuzenago bat egiteko Estatuko Txapelketetan lortutako dominak hartu dira kontuan, Euskal Arraunketaren maila kualitatiboa beste esparru batzuekin alderatu ahal izateko.


Ahalik eta emaitza gehien aztertu dira (1980-2008), Arraunketako Aulki Mugikorreko egoeraren ikuspuntu errealista bat lortzeko eta aztertutako denbora epean izandako joera ezagutzeko asmoz.

Aztertutako datua domina lortu duen arraunlari bakoitzarena da, hau da, skiff bat domina bat da eta zortziko ontzi bat, zortzi domina dira. Erreferentzia hau hartu da kontuan Euskal Arraunketaren "osasuna" nolakoa den ezagutzeko esanguratsua goa baita.

30 Irudia: Aulki Mugikorreko Estatuko Txapelketan lortutako euskal dominen eboluzioa 80-08




31 Irudia: Aulki Mugikorreko Estatuko Txapelketan lortutako euskal dominen eboluzioa 80-08 Joerak




“**Aulki Mugikorreko Estatuko Txapelketetan dominak lortutako arraunlari kopuruaren eboluzioa eta espero daitekeen joera garbia da: Euskadiko Aulki Mugikorrak estatuko erreferente izateari utzi dio eta nazioarteko estropadetan bere presentzia ez da ohikoa izan**”

Eboluzio ezkor hau euskal elkarteetan orokorra den ala ez jakiteko helburuarekin; edo elkarte batzuetan ala izan den eta beste batzuetan ez jakiteko, dominak lortu dituzten euskal elkarte bakoitzeko portzentaia aztertu da. Datuak alderatuz, emaitzen beherakada orokorra den ala ez jakin ahal izango da eta emaitzen beherakadaren artean salbuespenik ba ote dagoen jakin, erreferentziatzat balio dezakeena.

32 Irudia: Aulki Mugikorreko Estatuko Txapelketetan euskal Arraunketako elkarteek lortutako dominen portzentaia



“**Aztertutako denbora epearen arabera aldaketa handiak somatzen dira dominak lortu dituzten elkarten garrantziari dagokienez. Argi geratzen da, beraz, elkarten jarrera oso ezberdina izan dela**”




Aulki Mugikorreko Estatuko Txapelketako domina-zerrendan, dominak irabazi dituztenen artean, zazpi euskal elkarterenn presentzia nabarmendu daiteke:


- Hondarribia A.E.
- C.R.O. Orio A.E.
- Itsasoko Ama A.E.
- P.D. Koxtape A.E.
- Santiagotarrak
- Ur Kirolak
- Donostia Arraun Lagunak

Zazpien eboluzioa oso ezberdina izan da. Domina lortutako elkarte bakoitzaren datuak zehazki aztertuz:


33 Irudia: Hondarribia A.E.n Aulki Mugikorrean dominak lortutakoak 80-08



34 Irudia: C.R.O. Orio A.E.n Aulki Mugikorrean dominak lortutakoak 80-08



35 Irudia: Itsasoko Ama A.E.n Aulki Mugikorrean dominak lortutakoak 80-08




“Hondarribia A.E.k Aulki Mugikorrean lortutako emaitzetan oso joera baikorra azaltzen du eta modalitate honetan Euskadiko erreferente bilakatu da. Giltzarriak:


- Kalitatezko teknikarien profesionalizazioaren aldeko apustua eta elkartearen kudeaketarako langileak
- Hasierako injekzio ekonomiko handia proiektua abian jartzeko”

“C.R.O. Orio A.E.k mantendu eta joera baikorra aurkezten du, gora behera garrantzitsuekin, dominak lortu dituzten arraunlarien kopuruan. Nahiz eta badirudien, C.R.O. Orio A.E.k tradizio eta ezagupenengatik emaitza hobeaquak lortu zitzakeela”

36 Irudia: Ur Kirolak-en Aulki Mugikorreen lortutako dominak 80-08




37 Irudia: P.D. Koxtape A.En Aulki Mugikorreen lortutako dominak 80-08




“Dominak lortutako arraunlarien kopuruaren beheraka beste elkarteetan antzematzen da, neurri txikiago batean Santiagotarrak eta bereziki deigarria da estatu mailan Aulki Mugikorreen erreferente izandako bi elkarteetan: Itsasoko Ama eta Ur Kirolak”

38 Irudia: Santiagotarrak-en Aulki Mugikorreen lortutako dominak 80-08



39 Irudia: Donosita A.L.en Aulki Mugikorreen lortutako dominak 80-08



13. Arraunketako Euskal Federakuntzaren ahultzea

▲ Arraunketako Euskal Federakuntzaren egungo papera

Arraunketaren azken urteotako eboluzioa, liga pribatuetan oinarritzen den eredu baterantz doan antolaketa sistema, lurraldekako esparruan oinarritzko mailentzat antolatutako estropadak eta Aulki Mugikorreko jardueren beherakadak Euskal Federakuntza egoera ahulean utzi dute.

Egun Arraunketako Euskal Federakuntzaren jarduera nagusia lizentzien igortzea da, Aulki Mugikorreko eta Txapelketa ofizialetako estropaden antolaketa (3 Tostako Arraunketan eta 1-2 Aulki Mugikorrean), arraunketako teknikarien trebakuntza eta Arraunketako Euskadiko Seleksioko osaketa.



► Federakuntzako erabakitze eredia

Batzarrean eta Zuzendaritza-batzordean oinarritzen den Arraunketako Euskal Federakuntzako erabakitze eredia ez da beste Federakuntzekin alderatuz ezberdina. Berezitasuna Federakuntzako bi modalitateak elkarrekin bizitzeko duten zailtasunean datza.

Azken urteotan elkarteen artean egondako ezberdintasunak operatibitate eta dinamismo falta eragin dute, ekimen eta proiektu ezberdinak martxan jartzea ezinezkoa egin dutenak. Aipatutako ekimen eta proiektuek Euskal Federakuntza inguruneko errealitate berrietara egokitzea ahalbidetuko lukete.

► Federakuntzako langileak

Arraunketako Euskal Federakuntzako lan-taldeak esperientzia handia du administrazio lanetan eta Arraunketaren ezagupen maila handia du. Hala eta guztiz ere, lan-taldean bi irudi faltan botatzen dira Federakuntzaren oinarritzko xedea izan beharko litzatekena betetzeko: EAEn Arraunketaren sustapena. Bi irudiak honako hau izango lirateke:

- Gerentzia lanez arduratuko litzatekeen pertsona bat, Federakuntza berrantolatzeke heziketa egokia eduki beharko lukeena eta hau egiteko gaitasuna izango lukeena.
- Zuzendaritza Teknikoek eta Lurraldekako Federakuntzekin eta elkarrekin kirol arloko koordinazioaz arduratuko litzatekeen pertsona.

► Baliabide materialak

“Baliabide materialei dagokienez, Federakuntzako ontzidiak eta arraunak zahazkituta daudela azpimarratu behar da, erabilpen ezagatik bere balioa galtzen ari dira eta sarrera berriak lortzeko hauen salmenta aztertu beharko litzateke, egoera berrira eta Federakuntzako helburuetara hobeto egokituko litzatekeen materiala erosteko”

► Ligetako “konpetentzia”

Euskal Arraunketa Federakuntzan izenpetutako elkarteen jardueretatik sortutako Traineruen bi Ligek Euskal Arraunketako Federakuntzak kudeatzeko duen gaitasunaren eta elkarteen artean duen paperaren inguruan gogoeta bat egitera bultzatu beharko lukete. Elkarrekin elkarriketatuta ondoren nabarmendu beharreko alderdiak ondorengoak dira:

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoaren Ebaluazioa

- Ligen funtzionamenduan igartzen den funtsezko abantaila, Liga bakoitzak bere jarduerarekin zerikusi duen gaiez bakarrik arduratzen dela da eta, era horretan, Ligan parte hartzen duten elkarte guztiek **amankomuneko helburuak** dituzte. Eredu honek ez bezala, Euskal Arraunketako Federakuntzan ontzi edo modalitate bateko elkarteek (batelak, esaterako) beste modalitate batzuen inguruko erabakiak hartzen dituzte (Aulki Mugikorra, esaterako).
- Ligez zerbitzu bizkorrago bat eskaintzen dute eta elkarteen beharretara egokituagoa dagoen zerbitzua eskaintzen dute. Federakuntza baino **gehiago zuzentzen dira “bezeroa-elkartera”**

Elkarteen ekarpenak Federakuntzak era positibo batean baloratu behar ditu, berregituratzeko orduan informazio hau kontuan hartuz, bi oinarritzko baldintza hauetara egokituz.

Bestalde, Federakuntzarako mehatxu bat izan daitekeena antzeman da, elkarte asko Arraunketako beste jarduerak Liga berrien edo Federakuntzatik kanpo dauden Elkarte bidez antolatzeak duen interesa planteatzen hasi baitira (aulki Mugikorreko Liga, Hastapen Liga, Emakumeen Liga,...).

01. Programaren helburuak

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoa ebaluatu ondoren, Plan honek Arraunketa traineruan sustatzeko balio izan duela antzeman da, bai EAEn bai ingurunean. Aipatutako egituraketa hau piramideko gailurra izan daitekeena (Goi Errendimenduko Aulki Mugikorreko Arraunketa bat ezik) ez da oinarrizko mailetan islatu, ez eskolarretan ezta kadete eta jubenil mailetan ere.

Bestalde, traineruen lehiaketako egituraketaren eraginak modu ezkor batean eragin dio Aulki Mugikorreko Arraunketari, euskal Arraunketan bigarren maila batean geratuz.


Programa honen funtsezko xedeak honako hauek dira:

- Arraunketako Euskal Federakuntzaren orientabide berri bat proposatu euskal Arraunketako eragile dinamizatze batean bihurtu dadin eta bere orientabidea elkarrekin zerbitzura zuzentzeko.
- Gutxiengo oinarriak ezarri, Tostako Arraunketako oinarrizko mailak egokiago egituratuta egon daitezen.
- Aulki Mugikorreko jardueraren beherakada geldiaraziko duten ekintza zehatzak proposatu eta denborarekin hazkunde iraunkor bat bermatuko dutenak. Ekintza hauek bai mutilen senior mailara eta baita mutilen eta nesken beste mailetara zuzenduko dira.

Mutilen senior mailan bi modalitateak elkarrekin bizitzeko dituzten zailtasunak medio, beste maila eta maila honetarako helburu eta programa bereiztuak aurkezten dira.

02. Jardueretarako oinarrizko ideiak

Atal honetan proposatutako lan ildoen azpian dauden ideak azaltzen saiatzen da. Oso ideia zehatzak dira, ikus ahal izango den bezala, baina, era honetan, proposamenen zergatia ulertu eta zein eratan gauzatuko diren ikusi ahal izango da.



▲ **1 Ideia**
Arraunketa dena bat izango balitz bezala kudeatzeaz utzi

▲ **2 Ideia**
Konpromiso orokorren beharra

▲ **Idea 3**
Ekimen iraunkorrak abian jartzea

▲ **Idea 4**
Deskoordinaziotik guztien artean adostutako jardueretara

1 Ideia

Arraunketa dena bat izango balitz bezala kudeatzeaz utzi: modalitateak ezberdindu



Proposamena garbia da: modalitate bakoitzari dagozkion erabakiak, modalitate horretan aritzen diren elkarteek hartu beharko dituzte.

Bi modalitateak uztartzen saiatu ziren iraganeko esperientzietan Aulki Mugikorra Tostako Arraunketaren atzean geratu zen. Bestalde, ACT eta ARC Ligen adibideak kontuan hartuz, bertan jarduten duten elkarteek Ligei buruzko erabakiak hartzen dituztelarik, jarraitzeko bide interesgarri edo eredu interesgarri batean bilakatu dira.

Proposamena egungo funtzionamendu eredua bi erabakitze-taldeetan banaztetik hasiko litzateke: Tostako Arraunketa eta Aulki Mugikorra. Zatiketa hau Federazioetatik kanpoko erakunde batean gauzatuko litzateke (Ligen antzera); baina egingarri eta egokiagoa dela uste da Arraunketako Euskal Federakuntza barnean gauzatzen bada eta Federakuntzako Estatutuak moldatu bi modalitateen independentzia eta funtzionamendu zuzena ziurtatzeko.

Bestalde, gutxieneko jarduera bat ezarri beharko da elkarte bat Aulki Mugikorreko edo Tostako Arraunketako elkarte izan dadin eta modalitate bakoitzeko proiektuetan eta erabakietan partu har dezan.

“Egungo funtzionamendu eredua bi erabakitze-taldeetan zatitzen hasiko litzateke proposamena: Tostako Arraunketa eta Aulki Mugikorra”

2 Ideia

Eragile guztien artean konpromiso orokorrak hartzeko beharra



Iraganeko zenbait esperientzia gogoan hartuz, Arraunketarentzat ona zer zen kontuan hartu gabe Arraunketako zenbait eragilek beren interesen arabera jokatu zutela gogoratuz eta aurreko ideiarekin lotuta, Plan honetatik aurrera beste proiektuetan parte hartu nahi duten eragileen betebeharrak betetzeko marko zorrotzago bat ezartzea beharrezkoa dela uste da.

Plan hau modu orokor batean hartzen da kontuan, etorkizuneko bideragarritasunari begira akordioak orokorrak izan beharko lirateke eta ez litzateke posible izango zenbait ekimenetan parte hartzea eta beste zenbaitetan ez.

Aulki Mugikorraren kasuan, zehazki, Instituzioetatik modalitate honentzat laguntzak igortzen badira, modalitate honekin gutxiengo konpromisoak onartzen dituzten elkarteei eta beste eragile batzuei igorri beharko zaizkie: Euskadiko estropada kopuru batean parte hartzea, modalitateko proba eta ospakizunak antolatzea, hedapenerako kanpainak.

Beste zenbait kasuetan, hastapenerako laguntzetan bezala, beste konpromiso batzuekin lotuta egon beharko lirateke, hala nola, eskolarrentzako proben antolaketa, eskolarren hastapenak kalitate minimoa izatea gutxienez e.a.

“Eragileak proiektura heltzea edo ez proposatzen da baina heltzen badira modu orokor batean egin dezatela, abantaila guztiekin baina baita betebeharrekin ere”

3 Ideia

Beharrezkoagoa (eta eraginkorragoa) da ekimen iraunkorrek martxan jartzea, laguntza ekonomiko zehatzak baino



Denboran zehar iraunkorrek izango diren ekimenak proposatu behar direla uste da eta proposaturiko proiektuak, hain zuzen, ideia honetan oinarritzen dira. Diru-laguntza berriek edo beste motatako laguntza ekonomikoak proposatzeak agian elkarteen eta federakuntzen gastuak kitatu ditzakete, Euskadiko Arraunketak dituen momentuko arazoak konpondu edo Arraunketako egituraketa arazoaren eragin ezkorra arindu dezakete. Aitzitik, diru-laguntza mota honek epe luzean ez ditu Arraunketako arazoak konponduko.

Honegatik guztiagatik, proposamen eta proiektuak ezartzeko funtsezko ildo bat proposamenen iraunkortasuna izango da, Euskadin Arraunketako egitura eta lan-sistemak indartzeko helburuarekin.

ACT Ligako kasua adibidetzat hartuz, traineruen lehiaketarako antolaketa eredu berri bat sortzea, Ligaren arrakastarako erabakigarria izan da. Ezin da instituzio publikoetatik jaso duten laguntza ekonomikoa ahaztu baina laguntza hau, nagusiki, egitura berria sortzeko eta abian jartzeko izan da eta ez momentuko arazoei irtenbide bat emateko.

“Euskadiko Arraunketako antolaketa ereduan dauden egituraketa arazoak onartzea, denboran zehar irankorrek izango diren ekimenak proposatzea darama, Arraunketako ereduaren berriztatze orokor bat sustatuz”

4 Ideia

Eragileen arteko egungo deskoordinaziotik elkarrekin gauzatuko diren jardueretara



Arraunketako eragile ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzak jada 2003-2007ko Plan Estrategikoan Lan Ildo Estrategiko bat bezala ezarri zen. Koordinazio hau zenbait gai jorratzeko izan da; hala eta guztiz ere, federezio ezberdinen arteko irizpide ezberdinak, elkarrekin edo federazioen arteko irizpide ezberdinak eta instituzioak, denboraldi honetan zehar etengabeak izan dira.

Azpimarratu beharra dago koordinazioa eta lankidetzak funtsezkoak izango direla Programa hau behar bezala gauzatzeko eta, Euskadiko Arraunketako zenbait esparruren egoera kezagarria kontuan hartuz, koordinazioa premiazkoa eta presazkoa da.

Eragile guztiek zenbait konpromiso onartu eta Arraunketako egituraren eragile bakoitzak bere ardurak onartu ondoren, koordinazio sistema egonkor bat ezartzeko momentua iritsi da.

“Koordinazio sistema egonkor bat ezartzeko garaia da, eragile guztiek zenbait konpromiso onartu ondoren eta Arraunketako egituraren barne eragile bakoitzari ardurak ezarri ondoren”

03. Arraunketako Euskal Federakuntzako jarduerak

Ondorengo Programan proposatzen diren jarduerak aurrera eraman ahal izateko, lehenengo pauso bezala **Arraunketako Euskal Federakuntzaren berrantolaketa** bat proposatzen da, prozesu honetan zehar trazio-eragile bat izan dadin.

AEF-01. Lurraldekako Federakuntzen eta Euskal Federakuntzaren zereginak berraztertu


Orokorrean, funtzioen ondorengo banaketa proposatzen da:

Funtzioak	Arraunketako Euskal Federakuntza	Lurraldekako Federazioak
Arraunketaren sustapena bi modalitateetan	<input checked="" type="checkbox"/> - Aulki Mugikorrerako hedapen eta sustapen kanpainak	<input checked="" type="checkbox"/> - Elkarteei beren kanpainen lagundu
Hastapena Arraunketan bi modalitateetan		<input checked="" type="checkbox"/> - Hastapen maila eta ikastaroak - Eskolarteko Txapelketak
Errendimendua Tostako Arraunketan	<input checked="" type="checkbox"/> - Euskal Txapelketak Tostako Arraunketan	<input checked="" type="checkbox"/> - Lurraldekako Ligak Tostako Arraunketan - Lurraldekako Txapelketak Tostako Arraunketan
Errendimendua Aulki Mugikorrean	<input checked="" type="checkbox"/> - Euskal Liga eta Txapelketak Aulki Mugikorrean - Aulki Mugikorrean teknifikazioa - Euskadiko selekzioa	<input checked="" type="checkbox"/> - Lurraldekako Txapelketak Aulki Mugikorrean
Partaidetza bi modalitateetan	<input checked="" type="checkbox"/> - Aisialdiko Arraunketarako jardueren antolaketa	<input checked="" type="checkbox"/> - Aisialdiko Arraunketarako jardueren antolaketa
Goi mailako errendimendua Aulki Mugikorrean	<input checked="" type="checkbox"/> - Goi mailako errendimenduko "kirolaren gunea"	

Arraunketako Euskal Federakuntzaren berrantolaketa **ezinezkoa bada, beste aukera batzuk aztertzea** proposatzen da, Programa hau martxan jarri eta bere jarraipena ziurtatuko luketena (kanpo erakunde bat martxan jartzea, Programaz arduratuko den lan-talde baten trebakutza/kontratazioa). Hala eta guztiz ere, Ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena, eta 16/2006 Dekretua, Urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena, markoan eredu gomendagarriena Arraunketako Euskal Federakuntzaren erreforma izango litzateke eta Federakuntzak Euskadiko Arraunketako egiturari dagozkion ardurak izatea.

AEF-02. Federakuntzako egitura instituzionala eta operatiboa aldatu

Batzar Orokorreko eredu klasikoan oinarritzen den egungo erabakitze-eredua ez da eraginkorra izan eta Aulki Mugikorrean eragin ezkorrak izan ditu. Modalitate nagusietan aritzen diren elkarreentzat Federakuntzako Estatutuak aldatzea proposatzen da: Tostako Arraunketa eta Aulki Mugikorra, beren modalitateari dagozkion erabakiak har ditzaten. Era honetan, ondorengo egitura instituzionala eratuko litzateke:



Eredu instituzional honen funtzionamendu zuzenerako funtsezkoa izango da Federakuntzak lortutako finantzaketa modalitate bati edo besteari egozgarria izatea, bereziki diru-laguntza publikoen kasuan, diru-laguntza zein helburu orokorrera zuzendu behar den garbi zehaztuz.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Martxan jartzea: 2009 (berehala)

AEF-03. Langile sistema eta erabakitze sistema adostu


Arraunketako Euskal Federakuntzak lan eredu guztia aldatu beharra du elkarreentzako zerbitzuen kultura baterantz zuzenduz. Bai kirol gaietan (laguntza teknikoarekin), bai logistika gaietan (antolaketan laguntza, joan-etorriak,...) edo administrazio lanetan (lizentziak, datu interesgarriak, lizentziak igortzeak eta beste baimen batzuk), Arraunketako Euskal Federakuntzak elkarteei eskaintzeko zerbitzu aukera zabala du.

Arraunketako Euskal Federakuntza zuzentzeko beharrezkoa da lan ildo hau sustatuko duen lan-talde bat osatzea. Federakuntzaren berrantolaketan bi pertsonen kontratazioa islatzen da:

- Federakuntzako Gerentzia lanez arduratuko den pertsona bat, erakundeen Kudeaketa eta Administrazioan trebatua eta Federakuntzaren funtzionamenduari eta operatibitateari dagokionez, erabakiak hartzeko autonomia maila handia izango duena.
- Aulki Mugikorreko Zuzendaritza Teknikoaz arduratuko den pertsona bat. Bere ardura edo dedikazioa alderdi guztiek hartzen dituzten konpromisoen araberakoa izango litzateke; atzeraka doan modalitatearen beharrak asetzeko dedikazio oso bat proposatzen den arren.

Bestalde, egun Federakuntzan lan egiten duten bi pertsonen ardurak berrikustea beharrezkoa da (bat lanaldi osoz eta bestea lanaldi erdiz). Gerentzia lanez arduratuko litzatekeen pertsonak beste bi langile hauen ardurak eta lan kargak zehaztu beharko litzuzke.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Martxan jartzea: 2009 (berehala)



AEF-04. “Aulki Mugikorreko Batzordearen” trebakuntza. Konpromisoen akordioa

AEF-02 proiektuan Arraunketako Euskal Federakuntzaren egitura instituzionala aldatzeko beharra eta Aulki Mugikorreko Zuzendaritza/Batzorde bat abian jartzeko beharra jasotzen dira.

Zuzendaritza/Batzorde hau sortzeko Aulki Mugikorrarekin konpromiso argia duten elkarteetako talde bat ezartzeak lehentasuna du. Horretarako, Federakuntzatik talde honen sorrera dinamizatuko da, bete beharreko **gutxieneko konpromisoak** zehaztuz eta elkarte hauek Programa honetan proposatzen diren proiektuetan heltzeko aukera izan dezaten.

Gutxieneko konpromisoen proposamena ondorengoa izango litzateke:

1. Elkarteetako infantil, kadete eta jubenil mailak Aulki Mugikorreko modalitatera zuzentzeko lehentasuna izan behar dute.
2. Arraunketako Euskal Federakuntzak antolatzen dituen estropaden %80ra joan beharko dira (eta Lurraldetakoek antolatutakoetara hala bada), ez joatearen arrazoiak ezagutzera emanaz.
3. Aulki Mugikorreko Zuzendaritza/Batzordean parte hartu.
4. Maila hauei zuzendutako Aulki Mugikorreko Teknikifikazio prozesuetan parte hartu.
5. Euskadiko selekzioak parte hartzen duen txapelketetarako elkarteko arraunlariak laga eta Zuzendaritza/Batzordeak Txapelketa hauek errespetatu egingo ditu eta elkarteetako Aulki Mugikorreko egutegira egokituko.

Gutxiengo konpromiso hauekin (aldagarriak) betetzen duten elkarteek instituzioetatik Aulki Mugikorrarentzat jasotzen diren laguntzak eta abantailak jasoko dituzte. Gutxiengo hauek betetzen ez dutenak lehentasuna Tostako Arraunketari ematen diotela ulertuko da.

Ardura: Arraunketako Euskal Federakuntza

Tarteko eragileak: Eusko Jaurlaritza, Aulki Mugikorreko elkarteak

Martxan jartzea: 2009

AEF-05. Baliabide materialak egokitu

Arraunketako Euskal Federakuntzako Kudeaketara eta Administrazioa zuzenduriko baliabide materialak (eta zenbait baliabide inmaterial, programa informatikoak bezala) eguneratu egin behar dira. Eguneraketa Gerentzia lanez arduratuko den pertsonak ezarritako erizpideen arabera egin beharko da.

Kirol baliabide materialak, ontzidiek, arraunek, eta Federakuntzako beste material guztia bere benetako balioa galtzen ari da, erabilpen ezagatik eta denbora aurrera doalako. Baliabide hauek ez dira Arraunketako Euskal Federakuntzaren jardueretarako egokiak eta horregatik da garrantzitsua Zuzendaritza Teknikoaz arduratuko den pertsonak materiala berrikusi dezala eta Euskal Federakuntzak dituen beharrak jasotzen dituen txosten bat egitea, Programan proposatutako helburuak gauzatzeko.

Materialen berrikuntzarako prozedura egoki bezala, egun Federakuntzak duen materiala elkarteen artean enkantean jartzea proposatzen da, prezioetan mugak jarri, eta lortutako baliabide ekonomikoekin ontzi berriak erosten hastea, egungo euskal Arraunketara eta honen etorkizuneko proiektuetara hobeto egokitzen den materiala erosten hastea.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Martxan jartzea: 2009-2010

04. Tostako Arraunketako ekintzak

▀ Tostako Arraunketako sustapena

TA-01. Ikasarraunarekin koordinazioa ikastoletan arraunketa sustatzeko eta ikastetxeetan elkarten jarduera hedatzeko

2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoan “Arraunketako hastapen programa Ikastetxeetan” proiektua jasotzen da. Eusko Jaurlaritzako Plan honen baitan eta Ikastolen Elkartearekin lankidetzan, Ikasarrauna ekimena sortu zen, eskolarren artean Arraunketa hedatu zedin.

Ekimenak jarraipen zabala izan du eta Arraunketa ezagutu duten eskolarren kopurua handituz joan da etengabe. 2005-2006 denboraldian ekimen honetan 1.436 pertsonak hartu zuten parte eta 2007-2008 denboraldian 2.685 pertsona izan ziren.

Ikasarraunak Arraunketako sustapenerako helburua betetzen du eskolarren artean. Helburu hau ez da kaptazioko helburuarekin nahastu behar, elkarten eta Federazioen berezko helburua, bata eta bestea erabat bateragarriak diren arren. Ikasarrauna ekimenak mobilizatzeko duen gaitasuna positibotzat balioesten da Arraunketako modalitatea sustatzeko.

Hala eta guztiz ere, ekimen honen potentzialari ez zaio probetxu guztia atera eta zenbait elkarte soilik aritu dira lankidetzan ekimen honekin. Federatutako arraunketaren (elkarteak eta Federakuntzak) eta Ikasarrauna ekimenaren arteko deskoordinazio arazoak Ikasarrauna ekimena mugatu egiten du.

Atal honetan Federakuntzek, bai Lurraldekakoek bai Euskal Federakuntzak, Ikasarrauna eta bere udalerrietan Arraunketa sustatzeko interesa duten elkarten lotura izan beharko lukete. Federakuntzek ekimen honen jarraipena eta lortutako emaitzen jarraipena egin beharko lukete.

Arduraduna: Ikastolen Elkarte, Eusko Jaurlaritza
Tartean dauden eragileak: Gipuzkoako eta Bizkaiko Arraun Federakuntza, Arraunketako Euskal Federakuntza eta Klubak
Martxan jartzea: 2009-2010

▀ Tostako Arraunketako hastapena

TA-02. Hastapeneko mailarako estropadak eta Eskolarteko Txapelketak antolatu

Gaur egun Arraunketarako hastapena oso era ezberdinetan egiten da eta beti elkarte bakoitzaren erizpidearen arabera. Prozesua gazte batek Arraunketarekin duen lehenengo kontaktuarekin hasi eta federatutako lehiaketekin amaitzen dena da eta prozesu hau oso motza da. Arraunketan bi hilabete eskaseko esperientzia dutenak estropadetan lehiatzen aritzen dira esperientzia askoz gehiago duten arraunlariei kontra eta distantzia berdinetan.

Lurralde bakoitzean aldaketak ezarri dira eskola-adineko kirolariei zuzendutako Arraunketako txapelketa abian jartzeko (2003-2007ko Plan Estrategikoaren baitan zegoen Proiektua) baina lehiaketa eredu bakoitza ezberdina da.

Arraunketan duela denbora gutxi hasi diren gazteen ezaugarrietara egokitutako lehiaketa bat antolatzea proposatzen da. Elkarte bakoitzak bere inguruko eskolarrei zuzendutako txapelketak antolatuko lituzke eta beste elkarte batzuetan hasitako eskolarrek parte hartu ahalko lukete. Garrantzitsua da txapelketa hauek hastapenera egokituta egon beharko direla azpimarratzea eta lehiakortasun maila txikiagoarekin.

Federakuntzetako Zuzendaritza Teknikoetatik, elkarteekin lankidetzan, lehiaketen formatea, lehiaketen komunikazio sistemak beste elkarte batzuen partaidetzarako eta lehiaketa bakoitzaren partaidetzaren mugak zehaztuko dira, izaera lehiakor txikia izateko xedearekin.

Arduraduna: Gipuzkoako eta Bizkaiko Arraun Federakuntza
Tartean dauden eragileak: Elkarteak, Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundiak
Martxan jartzea: 2009-2011

▀ Tostako Arraunketako Errendimendua

TA-03. Jubenil mailarako hobekuntzak

Tostako Arraunketarako Jubenil mailako gazteak sarritan denboraldia martxoan amaitzen dute, bateletako Lurraldekako Txapelketaren ondoren. Denboraldia urria da eta datei dagokienez, desegokia.

Tostako Arraunketako jubenil mailako arraunlarien denboraldia zabaldu egin beharko litzateke, Aulki Mugikorreko jubenilena bezalaxe, udarako txapelketak barneratuz. Txapelketa hauek izan daitezke:

- Itsasoko Aulki Mugikorra (AM-08 Proiektua)
- Traineruak, elkarten arteko akordio ezberdinen bidez elkarte ezberdinetako gazteekin tripulazioak osatuz.

Itsasoko Aulki Mugikorreko modalitatearen hazkundera ez mugatzeko helburuarekin, jubenil mailako traineruak osatzeko aukera onartzen bada, estropada hauek egutegiarekin bateragarriak izan beharko liriateke.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Tarteko eragileak: Elkartek
Martxan jartzea: 2009-2012

TA-04. Emakumeen Tostako Arraunketa

Pasa den denboraldian (2007-2008) une garrantzitsuak bizi izan ziren Tostako Arraunketan. Nesken traineruentzat Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak eta Kontxako Estropada antolatu ziren. Hau guztia nesken arraunketa jasaten ari den bultzadaren erakusgarri da.

Programak irauten duen denboraldian zehar (2009-2012), **nesken traineruen estropada kopurua handitu beharko da**, nesken Traineruen Liga bermatzeko helburuarekin.

Nesken traineruen bultzadarako funtsezkoa da estropadak antolatzen dituzten elkarten gehiengoarekin akordioak lortzea (ACT eta ARC Ligetan parte hartzen duten guztiekin) beren antolaketan nesken maila barneratu dezaten.

Arraunketako Euskal Federakuntzak hartu behar du Liga hau bultzatzeko eta bermatzeko ardura, estropadak antolatzen dituzten eta nesken estropada hauek ospatzeko prest dauden elkarteekin lehiaketa egutegi bat osatuz.

Bestalde, Arraunketako Euskal Federakuntzak **elkarte ezberdinen arteko akordioak erraztu behar ditu traineru bat osatzeko beharrezkoa den tripulazioa** lortzeko. Eredu egoki bat eskualde berdineko klubentzako arteko akordioa edo gertu dauden klubentzako arteko akordioa izan daiteke, traineru kopuru handiago bat lortuz. Eredu honen ordez lurraldekako selekzioen ereduak, traineruen estropadetan parte hartu dezaketen nesken kopurua asko mugatuko luke.

Arduradunak: Arraunketako Euskal Federakuntza, Lurraldekako Federakuntzak eta ACT eta ARC Ligak.

Tarteko eragileak: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak

Martxan jartzea: 2009-2010

▀ Tostako Arraunketako partaidetza

TA-05. Maila beteranoa – Aisia. Estropadak, jaitsierak eta elkarteetatik beste jarduera batzuk

**Oharra: jarduera hau Tostako Arraunketara nahiz Aulki Mugikorrera zuzenduta dago*

Beteranoen maila eta aisialdirako Arraunketa, maila txikiago batean, hazkunde garrantzitsua jasaten ari dira azken urteotan. Arraunketak potentzial handia du pertsonak erakartzeko ere arraunketan aritu daitezen, beti ere exijentzia maila bakoitzaren aukerekin bat baldin badator.

Elkarte ezberdinetan Aisialdirako Arraunketak edo Beteranoek edukitako eboluzioa eta goieneko une hau zein eratan gertatu den ikusita, Arraunketa mota hau oso autonomia dela eta elkarteek eskaintza hau egiterakoan duten lan karga txikia antzematen da. Aisialdirako Arraunketako beste alderdi erakargarri bat eragin ditzakeen sarrerak dira eta elkarte gehienek aukera hau ez dute behar bezala aprobetxatzen, EAEtik kanpo dauden beste elkarteekin alderatuz.

Atal honetan, eta Programa honen denboraldian barne, mota honetako Arraunketarako gutxiengo oinarriak ezartzea proposatzen da. Gutxiengo oinarriak ondorengoak izango lirateke:

- Beteranoen mailarako Arraunketako Lizentzia bat abian jartzea. Lehenengo pauso hau funtsezkoa da etorkizunean maila honetako errealitatearen ezagupen hobea bat izateko eta ezagupen honekin neurri egokiak hartzeko.
- EAEn antolatzen diren estropadetan aisia/beteranoen maila barneratzea, Federakuntzatik interesa duten pertsonekin modalitate ezberdinetako egutegi bat osatuz (zortzikoen estropadak, lauhoak,...) bakoitzean gutxiengo partaidetza ziurtatzeko. Maila hau EAEn antolatzen diren nazioarteko estropadetan barneratzeak garrantzia berezia du (AM-02. Euskadiko Nazioarteko Estropadak).
- Federakuntzatik dagoeneko beste zenbait lekuetan antolatzen diren jarduera motak antolatzea sustatu, elkarteekin modu koordinatu batean landuz: irteerak, jaitsiera egokituak, e.a.
- Antolatutako Aisialdirako Arraunketaren inguruko komunikazioa egin Federakuntzatik edota komunikazio honetarako elkartei laguntza eskaini. Xedea kirol alternatiba osasuntsu bat bezala eta edozeinentzat egokia den kirol alternatiba bezala hedatzea da.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Tarteko eragileak: Elkarteak
Martxan jartzea: 2009-2010

05. Aulki Mugikorreko ekintzak

▀ Sustapena Aulki Mugikorrean

AM-01. Modalitatearen hedapena ikastetxeetan

Federakuntzetatik modalitate zehatzeko hedapen kanpainak antolatzeko konpromisoa hartzen duten elkarteei lagunduko zaie.

Federazioetako laguntza logistika gaietarako, administrazio gaietarako, imprimakiak egiteko, e.a. izango da. Arraunketako Euskal Federakuntzako Zuzendaritza Teknikoaz eta Logistikaz arduratzen diren pertsonak izango dira elkarteei laguntza eskainiko dietenak.

Elkarteen, Lurraldekako Federakuntzen eta Arraunketako Euskal Federakuntzaren arteko koordinazio sistema eta jarduerak Aulki Mugikorreko Zuzendaritza/batzordeak zehaztuko ditu.

Arduraduna: Gipuzkoako eta Bizkaiko Arraun Federakuntza, Arraunketako Euskal Federakuntza

Tarteko eragileak: Elkarteak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza

Martxan jartzea: 2009-2010

AM-02. Nazioarteko estropadak Euskadin

Euskal Arraunketako elkarte askok urteak daramatzate formatu ezberdineko nazioarteko estropadetara joaten. Izan ere, EAEn Orioko Nazioarteko Estropada ospatzen da Oriko Arraunketa Elkartek antolatuta.

Modalitate hau sustatzeko estropada hauek aukera garbia eskaintzen dute. Helburua bikoitza izango litzateke, EAEn bertan modalitatea sustatzea eta nazioarte mailako ikuspegian Euskal Arraunketa ezagutzera ematea.

Proposamena fase ezberdinetan gauzatzen da eta lehenengo fasea mota honetako ekimenak proposatzean datza, bi bereziki:

1. Orioko Nazioarteko Estropadari bultzada bat eman antolatzaileei antolaketa lanetan lagunduz, partaidetza handiagoa izateko eta bertako nahiz nazioarteko hedabideetan presentzia izateko.
2. Bilboko Itsasadarreko Nazioarteko Estropadaren antolaketa. Itsasadarra oso testuinguru erakargarria izan daiteke nazioarte mailako estropada bat antolatzeko, "Guggenheim eraginaz" baliatuz, ahalik eta partaidetza handiena lortzen saiatuz. **Bestalde, ekimen honek Bilboko Itsasadarra uretako jarduerak antolatzeko gune bezala suspertzeko balioko luke.** Erakunde ezberdinek "Deusto-Ingenieros Estropadari" ematen ari dioten bultzada ikusirik, antolaketa maila handiko nazioarte mailako estropada batenganako interesa sortzea ez litzateke arraroa izango.

Aipatutako bi ekimen hauek mota honetako ekimenen aintzindari izan behar dira eta Arraunketako Euskal Federakuntza beren antolaketaren arduradun nagusia izan behar da, zuzenki edo zeharka, mota honetako ospakizunak antolatzen dituzten adituen kontratazioa bideratuz. Antolaketaren kalitatea funtsezkoa da denboran zehar ospakizun hauek iraunkorrak izan daitezen. Bestalde, Arraunketako Euskal Federakuntzatik Bilboko Udalarekin harremanetan jarri beharra dago, bai Arraunketarentzat bai hiriarentzat onuragarria izango den proiektua elkarrekin gauzatzeko.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza

Tarteko eragileak: Elkartek, ospakizunak antolatzen dituzten Udalak eta Eusko Jaurlaritza

Martxan jartzea: 2009

AM-03. Modalitateko komunikazioa eta marketina

Arraunketako Euskal Federakuntzan Gerentzia lanez arduratuko den pertsonaren zeregin nagusietako bat Komunikazio Plan bat abian jartzea eta Marketin Plan bat, orokorra, eta Aulki Mugikorrekoa, zehazki, abian jartzea izango dira.

Federakuntzako elkarteen zerbitzura zuzenduta egoteak eta **Federakuntzak komunikazio politika aktibo bat** bultzatzearen garrantziak, Arraunketako Euskal Federakuntzako lan-taldea osatzeko momentuan kontuan hartu beharko lirateke, bereziki, Gerentzia posturako.

Arraunketan, komunikazioko teknologia berrien aplikapenak modalitateari buruzko informazio ugari jarri du eskuragarri nahi duen edonorentzat. Arraunketako Euskal Federakuntza aipatutakoaren jakitun izan behar da eta modalitatea sustatzeko oinarrizko aspektu batzuetan saiakerak egin:

- Federakuntzako web orrialdeko berrazterketa, informazio eta zerbitzu kopuru handiagoa eskaintzea zuzenduz.
- Youtube bezalako komunikazio kanal alternatiboetan presentzia
- Presentzia beste kanal eta giza-sare batzuetan
- Federakuntzako web orritik kanpoko orrialdeetan Federakuntzaren jardueren sustapena

Ardura: Arraunketako Euskal Federakuntza
Martxan jartzea: 2009-2010

▲ Aulki Mugikorreko hastapena

AM-04. Hastapeneko ikastaroen bateratzea eta Hastapeneko maila ezartzea eta Eskolarteko Txapelketak

Gaur egun elkarte ezberdinetan Arraunketako hastapen ereduak oso ezberdinak dira. Arraunketan Elkarte bakoitzak ekimen ezberdinak jartzen ditu abian neska-mutilen hastapenerako baina oso zabaldua dagoen ezaugarri batekin, hastapenerako epea laburra da eta lehiatzeko eskaini dezaketen alternatiba bakarra federatutako estropadak dira.

Duela denbora gutxi arraunketan aritzen hasi diren pertsonentzat, Arraunketako hastapenerako maila bat abian jartzeak pertsona hauei zuzendutako estropada egokiagoak antolatzea ahalbidetuko du, lehiakortasun maila txikiago batekin eta antolatzeko kostu ekonomiko txikiagoarekin.

Gipuzkoako Lurraldean mota honetako ekimenak martxan jartzen hasiak dira, honen emaitzak ezagutzea oraindik ezinezkoa den arren. Lortutako emaitzen berrazterketak hautatutako ibilbidea zuzena den edo formula berriak bilatzen hasi beharra ote dagoen argituko du.

Infantil mailako neska-mutilekin Eskolarteko Txapelketak martxan jartzea maila hauetako lehiaketatarako oinarriak jartzea ahalbidetuko luke, elkarteetako proba/estropada batzuetatik hasiz, Lurraldekako Eskolarteko Txapelketatik pasaz eta Eskolarteko Euskadiko Txapelketarekin amaitzeko.

Logikoa den bezala, mota honetako hastapenerako sistema bat ezartzeko Federakuntzetatik amankomuneko funtsezko irizpide batzuk ezartzea beharrezkoa da, Federakuntzak baitira jarraipena egiteaz eta kontrola eramateaz arduratuko direnak.

Arduradunak: Gipuzkoako eta Bizkaiko Arraun Federakuntza
Tarteko eragileak: Elkartek, Lurraldekako Foru Aldundiak
Martxan jartzea: 2009-2011

▲ Aulki Mugikorreko Errendimendua

AM-05. Aldaketak estropadetan eta egutegietan

Egutegiaren aldaketa bai 2003-2007ko Arraunketako Plan Estrategikoan bai 2006-2008ko Arraunketako Euskal Federakuntzako Plan Estrategikoan jaso zen. Aldaketarik egon ez dela kontuan hartuz, lehenetasuneko ekintza bat bezala jasotzen da (momento honetan gero eta lehenetasun handiagoa du) eta aldaketa hauek egiteko premia azpimarratzen da.

Federakuntzako Zuzendaritza Teknikoaz arduratuko den pertsona izango da, Aulki Mugikorreko Zuzendaritza/Batzordearekin adostuta urtero denboraldi bakoitzerako ezarriko den egutegiaz arduratuko dena.

Programa honen arabera, Aulki Mugikorreko egutegia aldatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak ondorengoak dira:

1. Infantil, kadete eta jubenil mailetarako Aulki Mugikorreko egutegia eta Aulki Finkoko egutegia independenteak izatea estropaden egutegiari dagokionez.
2. Aulki Mugikorreko euskal Liga baten eraketa, estropadak bi Lurraldeetan ospatuz.
3. Ontzi moten arabera mugatzen diren estropadak egutegian barneratu beharko lirateke (zortzikoen jardunaldiam Skiffak, bikoien ets laukoen jardunaldiak). Euskal Federakuntzak alderdi hau kontuan izan behar du ontziez hornitzerakoan, izan ere, agian elkarteei estropada hauetan uzteko/alokatzeko ontziak lortu beharko baititu.
4. Arraunlariek ontzi mota batean baino gehiago parte hartu ahal izateko (bikoizketa) estropadetako ordutegiak egokitu.
5. Puntuazio sistema bat definitu, elkarre bakoitzeko arraunlari kopurua saritzeaz gain, elkarretooko parte hartzaileen emaitzen batezbestekoa ere sarituko duena.
6. Udarako hilabeteetara jarduerak luzatu.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Tarteko eragileak: Aulki Mugikorreko elkarteak
Martxan jartzea: 2009

AM-06. Teknikazio jarduerak Aulki Mugikorrean

Euskadiko selekzioa sustatzeko eta selekzioaren eta orokorrean elkarteen kirol maila hobetzeko helburuarekin, **teknifikazio lanak areagotu egin behar dira, kontzentrazio gehiago egin eta Federakuntzako Zuzendaritza Teknikoak elkarreetan eskainitako laguntza areagotu.**

Teknikazio hau bai mutilen bai nesken kadete eta jubenil mailetan eta nesken senior mailan zehaztu behar da.

Elkarteen beharretara egokitzeko Arraunketako Euskal Federakuntzak Teknikazio jardueretarako eredia ondorengoa izango da:

- Uztaila, Abuztua, Iraila, Urria eta Azaroko hilabeteetan zehar Euskadiko Selektioko kontzentrazioak eta estropadak areagotu.
- Elkarreetan maila altu bat lortu duten ontziak, tripulazio osoarekin joan ahal izateko, zenbait estropadetan barneratu.
- Itsasoko Aulki Mugikorreko Arraunketan estropadak barneratu.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Tarteko eragileak: Aulki Mugikorreko elkarteak
Martxan jartzea: 2009-2010

AM-07. Itsasoko Aulki Mugikorra abian jartzeko oinarriak

Itsasoko Aulki Mugikorreko Arraunketa diziplina nahiko berria den arren, hazkunde azkar bat jasaten ari da praktika mailari dagokionez. Egun herrialde askotan aritzen dira modalitate honetan, bereziki Europan, mundu guztitik zabaltzen ari bada ere.

Ur irekietan aritzeko abantaila modalitate honek 2.000 metrotako estropada-eremuak behar ez dituela da eta hauxe izaten ari da, hain zuen, hazkunde azkar honen funtsezko arrazoietakoa bat.

EAEEn alternatiba oso interesgarri bat izango litzateke elkarte guztiek aritzeko aukera edukiko bailukete, bai itsasadarren bat dutenek eta baita itsasorako irteera dutenek ere. Bestalde, nazioarteko mailan euskal Arraunketa sustatzeko helburua kontuan hartuz, Munduko Txapelketa bat elkarteka antolatzeak interesa izan lezake.

Mota honetako lehiaketak antolatzeko dagoen muga edo ezintasun nagusia elkarrean dagoen ontzi falten faktorea da. Arazo hau pixkanaka gainditzeko, material mota hau Arraunketako Euskal Federakuntzak erostea proposatzen da. Material hau Euskadiko selekzioak erabiliko luke eta EAEEn edo beste zenbait lekuetan antolatzen diren lehiaketetan parte hartzen duten elkarteei utziko litzaike. Bi urteren buruan, Federakuntzak material hau elkarteei salduko lieke eta Federakuntzak bere ontziak berrituko lituzke, prozesua berrabiatuz.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Tarteko eragileak: Aulki Mugikorreko elkarteak, Eusko Jaurlaritza
Martxan jartzea: 2009-2010

AM-08. Senior mailako Aulki Mugikorrerako zortzikoen Liga

Senior mailako 8+ Liga sortzeak Aulki Mugikorreko maila honetan jardueraren bat mantendu nahi duten elkarteentzako indargarria izan beharko luke eta jarduera hau traineruko denboraldiarekin uztartu.

Maila ezberdinetako denboraldiei begira egiten diren planteamendu ezberdinak direla eta, **Ligaren iraupena eta Ligaren barne dauden zenbait estropada Aulki Mugikorreko beste mailetako denboraldiei, orokorrean, independentea izatea** intesgarria izango litzateke.

Egun zaila dirudi ontzi kopuru nahikoa izango duen Liga lehiakor bat proposatzea, Liga gauzatzeko proposamena Arraunketako Euskal Federakuntzako estropadekin eta Arraunketako Euskal Federakuntzatik kanpo antolatzen diren estropadekin gauzatu beharko litzateke. Mota honetako Liga martxan jartzeko proposamena ondorengo izango litzateke:

- Ligan parte hartu nahiko luketeen euskal elkarteak Ligara atxikitzea
- Inguruneke beste elkarte batzuen atxikimendua (Kantabria, Galizia, beste batzuk...)
- Ligan puntuatuko luketen estropadekin eta parte hartzen duten elkarteak joan beharra duten estropadekin egutegia adostu. Estropada hauek bai EAEn mailakoak, estatu mailakoak edo nazioarte mailakoak izan ahalko dira. EAEn antolatu ahal izango diren estropadak Ligan barneratu beharko dira derrigorrez. Puntuazio sistema adostu.

Euskal Federakuntzak, Gerentzia lanez arduratuko den pertsonak Liga honetarako berezko baliabideak lortzeaz arduratu beharko da (egungo Traineruen Ligen eredua jarraituz). Lehiaketa hau denboran zehar iraunkorra izan dadin, berezko baliabide ekonomikoak sorraraztea funtsezkoa izango da.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza
Tarteko eragileak: Aulki Mugikorreko elkarteak, Eusko Jaurlaritza
Martxan jartzea: 2009-2010

▲ Goi mailako Errendimendua Aulki Mugikorrean

AM-09. Arraunketako Aulki Mugikorreko goi mailako errendimenduko “Kirolaren gunea” osatzen lagundu

Kirolaren Euskal Planean Kirol Sistemaren ereduaren gailurrean Goi mailako errendimendua dago. Aulki Mugikorreko Arraunketan lan-talde zehatz baten sorrera proposatzen da, Londreseko 2012ko Joko Olimpikoetan euskal ordezkariaren bat egoteko xedearekin.

EAEEn “Kirolaren gunean” laguntzeko Fundación Euskadi Kirola Fundazioa “BAT – Basque Team” dago eta Fundazioaren xedea, hain zuzen, “Nazioarteko lehiaketa, batez ere, punta-puntako kirol ekitaldietan, ordezkariak oparotzea ahalbideratuko duen goi mailako euskal kirolaren garapen egokia sustatzea; halaber, aipatutako lehiaketetan euskal kirolarien goi mailako emaitzak lortzea” da. Fundazio honek taldearen prestakuntzarako eta teknifikaziorako zerbitzu zehatzak eskaini ahalko lituzke.

Talde hau elkarte baten eremuan jarri beharko litzateke martxan eta elkarte honetako arraunlariek elkarte honetako lizentziarekin aritu beharko liriteke arraunketan. Programaren finantzaketa interesa edukiko luketeen eta bideragarritasuna aztertu nahiko luketeen Administrazio publikoekin definitu beharreko gai garrantzitsu bat da.

Lan-taldea hartuko lukeen elkarteak eta arraunlariek urte osoan zehar arituko liritekeen elkarteak (Euskadi Selektzioarekin ez denean) talde honek lana behar bezala egiteko beharrezkoa lukeen azpiegitura eduki beharko luke. Bestalde, elkarte ezberdinek talde hau hartzeko interesa izango balute, elkarte bakoitzak konpromisoen proposamena aurkeztuko luke eta proposamen ezberdinak ebaluatzeko irizpideak ezarri beharko dira.

Taldea beregain hartuko duen elkarteari eskatu beharreko gutxiengo konpromisoa, taldea Aulki Mugikorrean bakarrik aritzea eta Fundazioak emandako lan ildoan arabera aritzea izan daiteke.

Arduraduna: Arraunketako Euskal Federakuntza

Tarteko Eragileak: Fundación Euskadi Kirola Fundazioa, Eusko Jaurlaritza, Aulki Mugikorreko Kluba

Martxan jartzea: 2009-2011

06. Proiektuen laburpena

Jarduerak Arraunketako Euskal Federakuntzan

- AEF-01. Lurraldekako Federakuntzen eta Euskal Federakuntzaren zereginak berraztertu
- AEF-02. Federakuntzako egitura instituzionala eta operatiboa aldatu
- AEF-03. Langile sistema eta erabakitze sistema adostu
- AEF-04. “Aulki Mugikorreko Batzordearen” trebakuntza. Konpromisoen akordioa.
- AEF-05. Baliabide materialak egokitu

Tostako Arraunketako ekintzak

- TA-01. Ikasarraunarekin koordinazioa ikastoletan arraunketa sustatzeko eta ikastetxeetan elkarteen jarduera hedatzeko
- TA-02. Hastapeneko mailarako estropadak eta Eskolarteko Txapelketak antolatu
- TA-03. Jubenil mailarako hobekuntzak
- TA-04. Emakumeen Tostako Arraunketa
- TA-05. Maila Beteranoa-Aisia. Estropadak, jaitsierak eta elkarreetatik beste jarduera batzuk

Aulki Mugikorreko ekintzak

- AM-01. Modalitatearen hedapena ikastetxeetan
- AM-02. Nazioarteko estropadak Euskadin
- AM-03. Modalitateko komunikazioa eta marketina
- AM-04. Hastapeneko ikastaroen bateratzea eta Hastapeneko maila ezartzea eta Eskolarteko Txapelketak
- AM-05. Aldaketak estropadetan eta egutegietan
- AM-06. Teknikazio jarduerak Aulki Mugikorrean
- AM-07. Itsasoko Aulki Mugikorra abian jartzeko oinarriak
- AM-08. Senior mailako Aulki Mugikorrerako zortzikoen Liga
- AM-09. Arraunketako Aulki Mugikorreko goi mailako errendimenduko “Kirolaren gunearen” osaketan lagundu


Avento Consultoria S.L. enpresak **Eusko Jaurlaritzako, Kultura Saileko, Kirol Zuzendaritzarako** eginiko proiektua.

Proiektuko koordinatzailea: **Juan M^a Murua**

Edozein ohar edo iradokizun egin nahi izanez gero, ondorengo posta elektronikora idatz dezakezue: jmurua@aventoconsultoria.com



Juan M^a Murua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



E info@aventoconsultoria.com
www.aventoconsultoria.com

Pokopandegi 11
Oficina 012
20.018 Donostia – San Sebastián

T 943 317 038
F 943 317 048